

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

Mozioak, Araban Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoari (2019-2022)

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko otsailaren 22an egindako Euskara, Kultura eta Kirol batzordean ondorengoa onetsi dute:

Mozioak, Araban Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoari (2019-2022).

1. Gaztelaniazko testuaren bigarren orrialdeko idazkera aldatzen da, A.1 letra.

“A.1 Aisia eta Kirola”

2. PLANAREN OINARRIen Lidergoa, elkarlana, koordinazioa eta partaidetza atalari esaldi bat gehitu zaio eta honela idatzita geratu da:

Lidergo konpartitua bultzatu nahi da: Plana Arabako Foru Aldundiaren ardurapekoa izanik ere, gainerako eragileen inplikazioa lortu behar da. Lehenik eta behin, Plan honek arrakasta izango badu, ezinbestekoa da lidergo hori konpartitzea Arabako euskararen sustapenean zein normalizazioan hamarkada luzeotan lan eskerga egin duen mugimendu euskaltzalearekin. Horrekin batera, udalena eta kuadrillena, horietako bakoitza ere lider izan dadin. Gasteizko Udalarekin elkarlanerako ahalegin berezia egingo da, herrialdean daukan pisu eta eraginarengatik. Lidergoa Euskararen Foru Zerbitzuari dagokio, baina Plana aurrera eramateko, helburu eta lan partekatutako planteatuko dira, aukerak emanez beste lidergo batzuk ere sortzea bultzatuz. Horretarako, mota guztietako eragileekin (barne- eta kanpo-eragileekin) elkarlan zabala bilatuko da. Beraz, horien parte-hartzea eta lana barnean hartuko ditu Planak, elkarlanerako bideak irekita.

Planak babes instituzionala izan behar du; inplikazioa garrantzitsua da. Gizartean zein Administrazioan, euskara alor guztietako aldagai bihurtzeko neurriak hartuko ditu, zeharkakotasunez aritzeko.

3. Gaztelaniazko testuaren zortzigarren orrialdeko idazkera aldatzen da, A.1 letra.

“A.1 Aisia eta Kirola”

4. Aldatu da aditzondo bat ARDATZAK ataleko “A. Gizarte-erabilera” atalaren hirugarren paragrafoan euskarazko testuan, eta honela idatzita geratu da:

Azpiardatzetako asko elkarri loturik daude. Beraz, gurutzatu egiten dira eta elkarreraginean kudeatu eta garatu behar dira. Gainera, kontuan hartu behar da euskararen erabilera ez dagoela soilik hiztunaren esku; edo egokiago esanda, ez dela beti izaten hiztunaren hautuzkoa, hainbat aldagairen mende dag oelako:

- Hiztunari dagozkionak: gaitasuna, erraztasuna...
- Inguruneari dagozkionak: harremanetarako euskarazko hiztun-sarea (familia, lagunak, lankideak...), euskaraz aritzeko guneak (aisialdia, kirola, lantokia...)

5. Gaztelaniazko testuaren hamaikagarren orrialdeko idazkera aldatzen da, A.1 letra.

“A.1 Aisia eta Kirola”

6. Gaztelaniazko testuaren hamaikagarren orrialdeko idazkera aldatzen da, A.1 azpiardatza:

“A.1 Aisia eta Kirola”

7. Ekintza berri bat gehitzen da, E.4.2.5, horrenbestez A.4. R.2 erronka ere berridazten da:

A.4. R.2 AFAREN baitan indarrean den Planaren arabera, kontratazioetan eta diru laguntzetan hizkuntza-irizpideak txertatzeko jarraibideak proposatu; halaber, AFAREN Euskalduntze eta Erabilera Barne Planak Plan Estrategiko honen helburu, ardatz eta ekintzekin bateratu, egokitu eta uztartu.

5 ekintza

E.4.2.5 AFAREN Euskalduntze eta Erabilera Barne Planak Plan Estrategiko honen helburu, ardatz eta ekintzekin bateratu, egokitu eta uztartu.

NOREKIN: AEZ, EZ

8. Euskarazko testuaren hogeita laugarren orrialdeko hasieran idazkera aldatzen da, C puntua:

“Erronka nagusia” ordez, “Helburu nagusia” idatzi behar da.

9. C.11. R.1 erronkaren idazkera aldatu da, eta honela idatzita geratu da:

C.11. R.1 Euskararen Foru Zerbitzuak Araban Euskara Sustatzeko Plan Estrategiko honen lidergoa partekatu Euskalgintzarekin, AEZ eta EZrekin.

10. C.14 azpiardatzaren E.14.1.1 ekintza aldatu da, eta honela idatzita geratu da:

E.14.1.1 Diseinatzea adierazle kualitatibo eta kuantitatiboen sistema bat, efizientea izango dena Euskararen Plan Estrategikoaren jarraipena eta ebaluazioa burutu ahal izateko.

11. E.14.1.2 ekintza aldatu da, eta honela idatzita geratu da:

E.14.1.2 Araban Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoaren jarraipen eta ebaluaziorako prozedura zehaztu: noiz, norekin, nola.

* Noiz: Urtearen lehen hiruhilekoan, eta beti ere martxoaren 31 baino lehen, AFAk aurreko urteko Plan Estrategikoaren gauzapearen balantzea eta urte horretarako jarduera plana aurkeztuko du.

* Norekin: AFAk urteko jarduera plana eztabaidatu eta adostuko du Euskalgintzarekin zein Toki Erakundeekin. Horretarako, behar diren baliabideak eta tresnak ezarriko ditu, baina ezinbestean Arabako Euskara Kontseiluaren hileria deitu beharko du martxoaren 31 baino lehen.

* Nola: Urteko jarduera planak jasoko dituen ekintzak ahalik eta zehatzenak izan beharko dira, hurrengo urtean euren betetze maila erraz ebaluatu ahal izateko. Ondo zehaztuko da ekintza bakoitza garatzeko ardua nori dagokion, baita zein eragile edota instituziorekin batera garatuko den ere. Halaber, ekintza bakoitzerako aurreikusitako finantzazio zehatza (diru kopurua zein finantzabidea) ere azalduko da.

NOREKIN: AEZ, Euskalgintza

12. E.14.1.3 ekintza gehitu da C.14 azpiardatzaren barruan:

E.14.1.3 Jarraipena egingo da eta zehaztuko da bi urteko kudeaketa-planetan. Amaitzeko, planaren ebaluazioa egingo da, eta argitara emango da 2013an.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 22a

Lehendakaria

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA